



## 16 TAULA (Etxeberria)

## Sagardo dolareen inbentarioa

### **ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Taula, Tabla.

**Auzoa, udalerrria:** Galtzaur., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserri barnean, lehen solairuan toleara eta behe solairuan upelategia.

**Jabea:** Elena Etxeberria.

### **DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Duela 20 bat urte egin zuten azkenezko sagardoa.

**Zenbait datu:** Azken urteetan patsa estutzeko orduan katu hidraulikoak erabili zituzten.

**Egungo erabilera:** Bere horretan mantentzen dute toleara.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

### **TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

#### **Dolare-prentsa:**

Askaren erdian zutik jarritako burdinazko ardatz du, goiko erdia hariztatua duela. Zati horretan muntatua du ardatzean gora eta behera mugitzen den burua, palanka bidez eskuz eraginda estutzen den mekanismoaz eta zurezko urkaz osatua. Tamaina handiko zurezko aska soliba edo azpi sunbilek eusten dute. Behe solairutik ikus daitezke azpi sunbila horiek. Baita ardatza azpitik eusten duen altzairuzko perfilaz indartutako egurra eta torlojua ere.

#### **Dolarearen osagarriak:**

- Motordun matxaka.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Jotako sagarra maneatzeko tresneria.
- Sagar biltzerako zare eta kizkiak.

**Argazkiak:** 16.01, 16.02, 16.03.

### **GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, zurezko aska, matxaka, Astigarraga.

### **OHARRAK**

Bisita eguna eta datu basea osatu bitartean, obrak egin behar dituztela eta, behe solairuko tina, upela eta ardatzaren torlojua askatu eta desmuntatu dituzte ebxetik kanpora ateratzeko.

### **GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Elena Etxeberria.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 16a